

+ Anaitasuna

III URTEA—N. 32

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Martia-Aprilla-Maiatza (3-4-5) 1.956

GURE BIDEA

Jainkoari eskerrak, euskerazko gauzak aspaldion gora aundia artzen asi dira gure artean. Unada onetan, iñoiz baiño liburu geiago argitaratu dira. Euskal Akademia berbiztu egin da. Gure izkuntza zarra ikasteko eskolak, an or emen idigi dira. Euskerazko orriak eta aldizkariak ugaritu egin dira. Erderazko periodikoak eurak bere, sarri askotan erabilten ditue euskerazko gaiak.

Ori data-ta, poztu gaitezan euskaltzale guztiok, eta ez daigun galtzen itxi euskerearen alde lan egiteko daukogun errea.

Lan orretan diardu aspalditik «ANAITASUNA»-k. Beti borondate onagaz, beti euskerearen alde zerbaite egiteko asmo sutuagaz.

Orañarte gitxi, oso gitxi egin dogu. Oraindiño asko falta jaku euskal katolikoak bear daben aldizkaria argitaratuteko. Gogoa, beñik bein, ba-daukogu. Ainbat ariñen aldatu gura geunke Orri kaxkar au. Geitu bere orrialdeak, ederragotu bere itxurea, obatu bere barrua.

Euskalerriko sartaldean bizi direanentzako, kristiñau aldizkari on bat egin gura geunke. Orretarako, gure ustez, biderik egokiena auxe da: gure katolikoak euren eskuarteko arazoetan gidatu, eta euren problema guztieri kristiñau erantzuna emoten lagundu.

Problema asko daukoz euskaldunak bere aurrean, eta ezin leiteke bizi eureri zelan edo alan erantzun barik. Ziñea, politikea, deporte, atsegiña, dirua, lana:

orra or beste orrenbeste problema, gure errikogizona sakonkiro ikututen dabenak.

Ba-dago beste problema bat, orregaitiño guztion biotzekoa dana: euskerearen bizitzea. Euskaldun eta kristiñau garean aldetik, danok ezagututen dogu gure eginbearra. Orretan ez daukogu dudarik. Lan egiteko moduan, barriz, danok gabiltza alkarren ala.

«ANAITASUNA»-k aspalditik artu dau bere bidea. Euskera errezean idatzi gura dogu, gure dialektua darabilen euskaldun guztieri ulertu eragiteko moduan. Badakigu gaurko euskerea erbesteko berbaz beterik dagoana. Orrek ez gaitu larregi artetatuten baiña. Fenomeno ori, asko edo gitxi, Europa'ko izkuntza guztieri jazo jake. Eta gureari zegaitik ez? Europa'n ez gara bizi ala? Zorionez, gure errietako euskerea guztiz ona da, erdal usaiñeko berbaz beterik egonarren. Auxe diñoe gure berbetea estudiatu daben Europa'ko jakintsuak. Geu be orretan gagoz, eta segurantza au eskaldun guztien biotzetara eroan gura geunke. Jakin daiela Eibar eta Bermeo'ko euskaldunak euren izkuntzea ona dala, euren pentsamentu guztiak —ogeigarren gizaldiko gizon modernuaren pentsamentuak— EUSKERAZ agertu leikeezalako, naiña euren berbetea erbesteko itzez josita egon. Bardin egiten dabe ingelesak, euren izkuntzako berbarik geienak kanpotik artuak izanarren. Eta gaurko egunean ingelesa da munduko izkuntzarik indar-

Bokotxak, illean bein, Anaitasuna-ren suskritore bakar bat egin ezkerro, indar aundia artuko dogu euskerearen alde.

tsuena, ingelestasunaren izpi bapere galdu barik.

Guk geuk, «ANAITASUNA»n eskribietan dogunok, ingelesen exempluari jarraitu gura deusagu. Bide ona artu dogula uste dogu. Bide zabala, guztion-

tzakoa. Jakitun eta ez-jakitunentzakoa. Europa'ko izkuntza guztiak guk baiño lenago artu izan dabena. Izkuntzalari jakintsu guztiak erakutsi deuskuena. Auxe da gure bidea.

Or, An, Emen

India.—Mariaren Misiñolari Frantziskotarrak —Eleizako emakume misiñolarien Organismorik aundienak— lepraduentzako etxe barri bat artu dau euren ardurapean Trichinopoly'n. Berrogei gaxo zainduko ditue bertan: 20 gizon eta beste orrenbeste emakume. Canada'ko katolikoak jaso dabe euren diruaz hospital barria. Lau milloi kalkuletan dira muduan dagozan lepradun guztiak. Beste instituziño guztien artean, Eleiza Katolikoa da errukizko egintza onetan obeto ta arduratsuzago lan egiten dabena. Obispo bi, 80 sazerdote, 9 anaia eta 56 monja kutsatu dira apostolutza orretan.

Italia.—Katoliko Langille Organizaiziñoak, Milan'en ospatuko dabe maiatzaren lenengoan euren jai egun internazionala. Katedraleko plazan batuko dira mundu guztiko katoliko langilleen errepresentatzaillak. Monseiñore Montini Kardinalak esango dau mezea, eta Kristo Langilleren estatua bat bedeinkatuko. Irudi ori helikoptero baten ekarriko dabe Erroma'tik, eta batzarra egiten dan bitartean elduko da plazara bertara.

—Urte onetan asiko dira Siracusa'n Negarrezko Ama Virgiñearentzako santuario aundi bat egiten. Konkursu bat atondu dabe eleizearen planoak autatuteko. Bosteun ta larogei arkitektu, 36 naziñotako, presentatu dira konkursura. Eleizea amaituten danean, ogetamar milla lagun sartu al izango dira barruan.

Sicilia'ko erri orretan, orain lau urte direala, Ama Virgiñearen irudi batetik negar malkoak urten eben mi'agru moduan. Urte betegarrenean, Sicilia'ko Obispoak, gauza guztiak ondo arakatuta gero, ago batez deklaratu eben Ama Virgiñearen negar pulloak egiazkoak zireala eta naturalki ezin explikatuz eitekezala. Oraindiño Erroma'k ez dau deklaraziño ofizialik egin. Ori gorabeera, Aita Santuak, 1954'

an, Sicialia'ko Kongresu Marianoari berba egin eutsanean, aitatu egin eban Siracusa'ko milagrua, eta L'Osservatore Romano-k gogoz argitaratu eban Sicialia'ko Obispoen eritxia.

Nigeria (Afrika).—Ofedma Printzesea Orlu'ko erregearen alabea, monja sartu da, ogetalau urtegaz. Bere estudioak Irlanda'n, Dublin'eko Unibersidadean egin ditu. Habitu santua kapilla txiki baten artu dau. Bere aitak, leku orretan eleiza aundi bat eregiteko agindu dau. Berreun milla dolar kostatuko dau obra barriak.

Alemania.—Urrengo Kongresu Eukaristiko Internazionala, Munich urian ospatuko da, 1960'an.

—Galtzairuzko oialaren beste aldeko errietan, agintari komunistak debekatu egin dabe erlegiñoa irakastea, ume txikien eskoletan izan ezik beste guztietan. Ori agindu baiño lenago, ekiñaldi izugarri bat egin eben umeeri domeketako meza-tatik alde eragiteko, eta kristiñau irakaskintzeari edozetariko eragozpenak ipinteko.

Frantzia.—Paris'eko Feltin Kardinalak, Informaziñozko Komisiño Episkopalaren Zuzentzaillak, gora aundiko arazo bat artu dau bere gain. Bere aginduz eta Radio, Zinema ta Televisiñoaren Zentral Katolikoaren bitartez, ainbat arifien sortuko da Paris'en Frantzia'ko Entzule ta Ikusleen Alkartasun Nazional Katolikoa. Alkartasun orrek, VOX izena eukiko dau.

Alkartasun barriaren asmoak, oneexek dira: a) Zaindu alkartuen eskubideak naziñoko agintarien eta radio, zinema ta televisiñoako profesionalen aurrean. b) Edukatu erria radio, zinema ta televisiño-gauzetan.

Frantzia'ko 23.000 parrokitan banatuko dira txantelak, al danik geienak VOX

Alkartasunean sartu daitezaz. Denporagitxi barru, milloi bat inguru bazkide izango ei dira.

Holanda.—Denporagitxi barru naziño onek embajadore katoliko bat eukilko dau Aita Santuaren aurrean: Marchant d'Ansembourg'eko Kondea. Holanda ta Vaticano'aren artean artu-emon diplomatikoak asi zireanetik, auxe izango da lenengo embajadore katolikoa.

—Harlem'go Obispoak 28 abade izentatu ditu, fabriketan apostoladua egiteko. Kapellau buruzagi baten menpean lan egingo dabe danak, Ijmond'eko lurralde industrialean. Danak etxe baten biziko dira.

Bilbao.—Jesuiten Beñolako Ikasleen Irugarren Kongresua, aurten bertan ospatuko da; eta San Iñazioran egunean asiko da. Lenengo batzarra, Loiolan izango da; eta urrengo guztiak, Deustu'ko Unibersidadean.

Aurreko Kongresu biak, erbestean ospatu izan dira: lenengoa Stuttgart'en (Alemanian) 1932'an; bigarrena Erroman 1954'an.

Irugarren Kongresuaren lekua elegietako, eztabaidak izan dira. Frantsesak, euren aberrira eroan gura izan dabe; eta bardin beste naziño askok. Baiña azkenean, San Iñazioran eriotzearen laureungarren urteurrena aurten ospatuten dala-ta, Kongresu ori Espainian eukitea arabagi dabe; eta Espainiako toki guztien artean Euskalerrria (Loiola ta Bilbao) autatu dabez. Loiola, San Iñazioran jaioterria dalako; eta Bilbao, Deustuko Unibersidadea bertan dagoalako eta onelango kongresuak egiteko uri aundi ta guztiz egokia dalako.

Kongresua, Internazionala izango da. Hispano-Amerikatik, Jesuiten Beñolako Ikasle asko etorriko ei dira.

Estadu Alkartuak.—Naziño onetan bizi dira munduko judegurik geienak: 5 200.000. Berreun milla judegu baiño geiago daukezan naziñoak, Amerikako Estadu


Lenengo batzarra, Loiolan izango da; eta urrengo guztiak, Deustu'ko Unibersidadean.

Alkartuen urrengo, aoneexek dira: Rusia 2.000.000; Israel 1.550.000; Ingalaterra 450.000; Argentina 360.000; Frantzia 300.000. Igazko urtean, mundu guztiko judeguak 11.908.443 zirean, 58.557 geiago igazlenean baiño.

Bilbao.—Danok dakizue «La Gaceta del Norte»k euskerearen gaiñean eta gure gurea dan Euskaltzaindiaren gaiñen argitaratu dituen artikuluen barri. Burutu dau euskereak aldi gaitz bat, ezereen errazoi barik politika zentzuna leporatu jakon bat, esan deusku. Edozein ideologiaren gaiñetik dagoen euskerea guztiona da eta alegin guztiak egin bear doguz bizirik atera daien bere burua.

Euskaltzaindiaren arlo biak urten dabe aizetara filologikoa eta jagotezkoa. Adierazo dau zelan aurten agertuko dan gerra aurrean ateraten eban EUSKERA bere lan eta agiria-kaz. Baita Euskaltzaindiak Bilbon, bere etxean, jarririk deukozan euskal klaseen barri emon be, euskalzaletasunaren asegarri eta geroko langilleen itzaropenez egiten direan klaseak.

Bigarren artikuluan, Astiz jaunak, Napparroako barri emoten deusku. Euske-



rea il eztaiten nafarrak deukiezan asmo txalagarriak erakusten deuskuz emengo euskalzale loak artuak itzartu daitezcan eta euskaldunak lotsea galdu ta piztu.

Badakizue, ba, euskalzaleok, lan egiten asi bear da: literatura landu; gure inguruan piztu euskalzaletasuna ta miña; euskeraz berba egiten beartu gure ingu-

rukoak; psikosis ori sartu aroan; al daue-nak estudioetan ekin eta gure berbeteari bere baztarrak eta zoko guztiak arakatu, gero zentzunez baliatuteko jakiten deus-saguzan gauza guztiakaz; gurasoak seme-alaberi irakasten alegiñak egin; bear direan liburu ta errebista errezak argita-ratuteko laguntza einon, eta era askotara.

PURGATORIOA

Aspaldiko Lagunak

Soldautzako lagunak zirean. Azkenen-go gerra mundialean, gudaldi guztietan eta arrisku guztietan ibilli zirean alkarren ondoan. Bein baiño geiagotan salbatu eutsan batak besteari bizitzea. Ori dala-ta, anaiak lez maite eben alkar. Gudua amaituta gero, bakotxa bere errira biurtu zan: bata, bere etxean geratu zan; bestea barriz, etxekorik aurkitu ezebala ta, bere familia billatuten asi zan. Arrezkero ez eben alegiñik egin alkarren barri jakiteko, eta geldika geldika aztu egin zirean bata bestegaz.

Pedrok, motozikleta fabrika bat idigi eban. Negozio galantak egin zituan, eta beingoan millonario egin zan. Etxe eder bat erosi eban itxasertzean, eta bere familiagaz araxe joaten zan urtero uda denporan.

Josek, ez eban aurkitu bere familia. Bere emaztea ta alabatxua il egin zirean nunbait gerratean. Biotzeko naibagea kentzeko, edanari emon eutsan, eta laster pobreen antzera erririk erri limosna eske asi zan. Urteak joan urteak etorri, jai egun baten aberatsaren etxera etorri zan eskean. Jo eban atean, jatsi zan ugazaba, begiratu eutsan batak besterari, eta emo-ziñoz beterik ezagutu eben alkar.

—Kaixo Jose, nire aspaldiko laguna! Zer jazo jak, aolan ibilteko?...? Dana dala, asko poztuten nok, gero ta gero be alkar ikusi joagu-ta. Gaur neugaz jango dok, eta Estaduko burdiña-fabriken zuzen-dari generalagaz, provintziako gobernadoreagaz eta erriko alkate jaunagaz jarri-ko aiz maian.

Olako izen aundiak entzun zituaneko, jantoki eder baten irudia etorri jakon

burura: mantel zuriak eta emakume per-fumedunak, gizon dotoreak eta ondo jan-tziak. Eta, bere barruan, lotsatu egin zan. Ain itxura txarrean, bera ezin eiteken agertu janlekuan. Ara orduko, **GARBITU** egin bear zan. Joan zan baiñura, kendu eban bizarra, ebagi zituan atzazalak, moztu eban ulea. Tormentu itzala izan zan beretzako garbiketa ori: ain bizimodu baldana eroan eban ordurartean! Baiña bere adiskide mamiñaren pentsamentuaz eta laster beragaz jango eban banketearen gogoraziñoaz, pozik egin eban eginkizun ain gogor ori.



Jainkoak ez dau egin Purgatorioa, bere semeen arimeri sufridu eragiteko. Purgatorioa ez da tormentu lekua, gar-biketa lekua baiño. Araxe joaten dira, zeruan sartzeko prest ez dagozan arimak. Jainkoaren aurrean agertu orduko, garbi egon bear dabe. Zeruan ezin leitekez sartu, loirik dagozan bitartean. Ori dala-ta, euren kabuz joaten dira Purgatorio-ra, eta pozarren sufrietan dabe ango dolorezko garbiketea. Sufridu bai, baiña alaitasan eta bakez beterik, arik-eta zeruan sartzeko bear dan garbitasuna lortu arte.

Alan ta guztiz-bere, geure eskuan dago zerura zuzen eta artez joatea. Orre-tarako, garbitu gaitezcan mundu onetan,

arazo ori beste mundurako itxi barik. Artu daiguzan asmo orregaz gure eguneroko sufrimenduak. Gure obra onen bitartez, purifikatu daiguzan gure arimako loike-riak, eta ordaindu gure txartoegiñak.

«**Edur Zuri**» pelikulea ikusi dozue-
nok, gomutetan zarie aurki jazoera one-

gaz: Zazpi epoak, bazkarian eta bazka-
losteko jaietan parte artu orduko, garbitu
egin bear izan zituen euren buruak. Bat
izan ezik, beste guztiak pozik egin eben
eginkizun gogortxu ori, Edur Zuri'en
amorearren.

Aingeru.

Txinpartak Luis-tarren Teatroginiñen


**SAN IÑAZORI BILBOKO LUISTARRAK ERAIKIKO DEUTSIEN MONUMENTURAKO
DIRU-BILKETAREN ALDE.**

Birritan izan dira Txinpartako gazteak
Luistarrenean. Lenengokoan saloia guztiz
bete zan ezker ta gente asko ikusi barik
gelditu, garizumea igaro ostean barrero
prestau dabe beste agerraldi bat, gauza

mimika zala festearen nagusi. Bilbo uri
erdalduna izanik ausartu ez zuzentzai-
lleak, bear bada, euskeraz emoten gaia.
Alan ta guztiz be, ni enaiz eritzi orreta-
koa oso osoan. Bilbon erdi euskaldun
asko dago, uste dan baiño geiago, eta
talde polita batuko litzake gogo onez
olako bat ikusten. Ausartagoak bear dogu
izan, ausartagoak; bestela ezteutsagu
sekula emongo gure euskera oneri abia-
darik, geienok itzez ain maitasun andia
egertzen deusagun gixajo oneri. Gaiñera
euskaldun motzak garean bilbotarriori zer
jan emoten ezpadauskue, geroago ta
motzago egingo gara, ikasi ta sendotu
bearrean aitzu, baztatu ta zokoratu egin-
go jaku dakiguntxo. Eldu ta lotsea ta
epeltasuna galtzeko sasoa. Itzartu gaite-
zan gure lo gogorretik eta gure eginbe-
arra zein dan finkatu, ta ez alde egin
bakoitzak bere zeregiñetatik trankiltasu-
naren egoitza bareetara. Ta asi naiz
Txinpartako gazte zintzoakaz berbetan:

¿Asmo barririk bai zuon taldea obetu
ta aberastuteko?

Asmoak bai asko, baiña ezin joan
aurrera gura geunke baizen aguro. Ame-
sak aundiak, baiña al danari bakarrik lotu
bear ta gure astirotasunaren miña sufridu.
Orra or egiteko batzuk: kantuan neskak
bakarrik ekin dautsie orainarte. Asi gara,
ostera, neska-mutillen artekoa prestetan.
Teatro kontuan beste gauza barri batzu-
etan salatuten asi gara. Al balitz guk
pozik estudiantuko geunke obra oso bat
Bilbon edo erri aundi batean emon al izan
ezker. Orainarte errietatik zear ibili gara
eta gauza laburrak egin izan doguz, kantu
ta dantzak nasturik, erritar askok oiturarik
eztauelako goragokoak entzuten. Dana



Birritan izan dira Txinpartako gazteak Luistarrenean.
bera zala atxakia, diru bilketea. Orain-
goan mutu agertu jakuz Txinpartakoak,



Oraingoan mutu agertu jakuz Txinpartakoak, mimika zala festearen nagusi.

dala, orreri eusteko asmoa deukogu, baiña baita euskeraz egiten direan teatroko gauzeri bear dan gora aundia emon gura be, dotoretasunaren bidea izan daiten. Orretan idazleak be badaukie euren itza.

Erri batzuetan orainarte arrera ona izan dogu ta arretaz artu gaitue. Prest gagoz aurrerantzean be urtenalditxoak egiteko eta gaiak aldatuteko. Orretan errietatik laguntza apur bat bear dogu, erriko egunik egokienak autatuz. Gure aldetik borondate osoa ipiñiko dogu joan al izateko eta gaiak al danik onenak eta atsegingarrienak izan daitezcan. Bizkaitarren biotzak alaitu gura doguz eta gure berbete veneragarria pozgarri biurtu.

¿Zeinbat denpora darozue euskerearen aldeko arlo onetan?

Badira lau bat urte. Oso mantso ta humil asi giñean, eta orainarte askotzarik aurreratu ezarren, urratu doguz apur bat gure aurreko estropasuak eta apurka apurka argiago ikusten dogu etorkizuna, euskalzaletasunaren espiritua biotz euskaldunetara biurtuten asi dan ezker. Euskaltzaindiari eskerrak bere babespean artu ginduzalako. Pozik gara lankide ta bere elburu ta xedeak garaituten ekiteko prest gaukaz.

Iztun.

ESPAIÑIAKO KATOLIKOAK ETA ZINEMATOGRAFIA

Gogoraziño batzuk egin gura doguz Espaiñiako zinematografia katolikoaren inguruan. Ikusi zer egin dan Espaiñian arlo onetan 1955'ean. Alde batetik, inportantzia aundikoa da guretzako igaro dan urtea. Berebiziko okasiño bitan, miragarriro berba egin dau Aita Santuak zinematografiaren gaiñean. Bagillean eta urrian Italiako film industriaren errepresentatzailleri egin eutsezan berbaldietan auxe ikusten da: Aita Santuaren artegatasun aundia gure egunotako ziñearen egokereagaitik, eta bere gurari sutsua ziñeko gauzetan katolikoak ainbat ariñen zuzendaritza artu daien. Erbesteko katolikoak gogoz eta probetxu aundiz estudiantuko ditue aurki Aita Santuaren berbak.

Espaiñiakoak, barriz, begi illunez geratuko dira. Aspaldiko urteetan Kristoren Eleizearen serbitzaille zintzoak izanarren, gaurko egunean —ziñea dala ta— Espaiñiako katolikoak ez dabe oraindiño gora aundiko fruturik emon.

UTSUNEAK

Espaiñian ez da egin oraindiño katoliko izena merezi dauan pelikularik. Kalifikaziño ori lortuteko, urrean ibilli zirean bearbada, "Judas" filmatu ebenean. Baiña zoritxarrez, pelikula ori ez zan izan ain ona, alegin aundi barik gauza ederra egin gura izan ebelako. Beste batzuetan, geie-

netan, diru asko irabaztearren, katoliko ezjakifientzako eta sentimentuzko erlegiñoa daukenezako egin dabez pelikulak. Eta orretarako, fatsotu egin dabe kristiñau bizitzea, eta pelikuletan presentatu daben erlegiñoa ez da izan egiazkoa eta Kristok irakatsi deuskuna. Noiz elduko da merkataria templutik kampa botateko ordua? "Olla-rraren Kantua"k, Gil-Escribá'ren azkenengo pelikuleak, zorionez, ez dau euki egilleak begitandu eben besteko abegi ona. Katoliko eskolatu geienak kondenatu egin dabe pelikula ori eta berba gogorrekaz kritikatu. Ori dala-ta, zelan edo alan galerazo egin da katolikotzat emon gura izan deuskuen beste pelikula txar bat.

EMPRESARIO KATOLIKOAK

Asko egin al izan dabe ziñe onaren alde. Eurak zirean Eleizearen itxaropena. Baiña zoritxarrez, filmegilleen antzera, eurak-bere uts egin dabe. Euren ziñetokietan pelikula txarrik iñoiz emon gura izan ez balebe, segurutik naibage asko eukiko eben eta bearbada dirua naikoa galduko. Baiña orretara, euren fedeari serbitzu ederra eringo eutsen, eta katolikoaren borondatea irabaziko. Euren eskuetan egoan erriaren aziera morala ta artistikoa; eta nai izan balebe, euren negozioa —bide batez— kristiñau apostoladuko lanbide baliotsua izango zan Eleiza Katolikoaren onerako. Beste alde-tik, Espaiñiako eleizgizonak ziñetoki gitxi euki dabe euren mendean, umeak eta gurasoak pelikula onak ikustera erakarteko. Katoliko geienak osterantzeko ziñetokietara joan bear izan dabe. Orregaitik, empresario laikoak lan guztiz txalogarria egin eikeen arlo onetan. Baiña adutxarrez, ez dabe egin. Eurretarike geienak naiago izan dabe edozelako pelikulak argitaratu, diru geiago irabazteko. Danak alkartuta, errez emon eikeezan umeentzako film egokiak, gəztetxuak, arrisku barik gauza on asko ikasita, astiro astiro probetxuko gizonak egin eitezan. Baiña ori-bere ez dabe egin.

GURE EGINKIZUNA

Frantziako katolikoak, Ziñearen Dokumentaziño ta Informaziñozko Agentzia bat dauke. Beronen bitartez lan egiten dabe, pelikula onak publikoaren artean

txera ona euki daien. Ez da naikoa katolikoentzako, film txarrek ez ikustea edo parrokietako ziñetokietara joatea. Pelikula gaiztoak baztertu gura baditue, ekiñaldi eragille bat egin bear dabe, film onak zabaldu, ezagutu erazo eta zainduteko. Orixe egiten dau, ain zuzen be, Frantziako Agentziak. Orrezaz gaiñera, berebiziko argitasunak eta burubideak emoten deutsez filmegille eta ziñetoki ugazaberi. Uri nagusi guztietan daukoz sukursalak, eta Ekintza Katolikoaren bitartez egiten ditu bere eginkizun guztiak. Pelikula baliotsuren bat agertzen danean, filmegilleak eta empresarioak eurak lagunduten deutse Agentziari propagandarako bear direan diru ta materialagaz. Zoritxarrez, balioko pelikula gitxi argitaratuten dira Espaiñian; baiña olakoren bat noizik noizera gure ziñetokietan agertzen danean, zer egiten izan dogu guk bere egiazko balioa ezagutu erazoteko, eta al danik geienak bera ikustera joan eragiteko?

ESKRIBITZAILLEAK

Pelikulen argumentua idazten dabenen artean, ba-dagoz Espaiñian katoliko zintzoak. Ori gorabeera, artu ete dabe iñozi ardurarik, euren burua ta lumea Jainkoaren serbitzuan ipinteko? Kristiñau bizitzearen testigukuntza ederra izan leitezkezan ainbeste ta ainbeste argumentu miragarri alde baten itxita, geienetan ganora bakoak edo folklorikoak erabilten izan ditue.

«BESTEAK»

Eta onelan jarraitu geinke, utsuneak agirian ipinten. Baiña, gu ziñeko gauzetan ardura barik gagozan bitartean, «besteak» gogoz diardue euren arazoan. Ziñearen bitartez, bizeitzearen ikuskizun baltza ta antikristiñaua emoten deuskue, eta munduko miseriak erruki bape barik nabarmentzen ditue. Zetarako? Gizonen bizimodua onduteko? Ez. Orrek ez deutse arean ardura. Munduak ostera, zuzenbidea ta bakea gura ditu, eta asko poztuko litzake, ziñean aurkituko balitu. Geuk emon bear geunskioz pelikula baliotsuen bitartez; baiña zoritxarrez beti dira «besteak» guk baiño lenago erriaren pentsamentua moldatuten dabena.

Arantzazu ta Bizkaia

Talan... talan,
Aloñaren maldan!

Antxe agertu zan, Aloña mendian,
atxez inguratuta, troka artean. Ta agertu
be, arantza zorrotzeko elorri baten ga-
nean agertu zan.


Kanpai bat elorritik dindiliz "talan .. ta-
lan". Ta oiñak arantza ganean zituala,
Zeruko Amaren iruditxu bat, ezpanak er-
di barreka, begiak urdin, arpegi osoa ze-
rutar baillitzan.

Urteak dira ordurik ona. Baiña Aran-
tazuko Ama, agertu zan legetxe dago.
Eztozue bere irribarrearen gozoa miazka-

eguzkiak printzak lez, zabalduen ditu
Berak bere mesederik baliotsuenak eus-
kaldunen biotzetara.

Ta alantxe izan bear. Ezkara gu bere
semeak? Bai orixe! Gorputz eta arimaz
ganera. Ezta Bera gure Ama? Esan daie!
urtean urtean erromes Arantzazu mendira
igoten dabenak.

Emen ikusi daroaguz Gipuzkoako
erriak, Bizkaikoak, Napparroa aldekoak,
Arabako semeak, Frantzia aldeko euskal-
dunak... danak. Euskaldun izena soiñean
daroen guztiak batuten dira Arantzazuko
Amaren mantupean.



ARANTZAZU: *Atxez inguratuta, troka artean.*

tu? Bere oiñetan dago oraindiño orduko
elorría, urregorritzko azal bategaz. Bere
begiak zeru kolorea dauke oraindiño. Ta
bai pozik egoten dala bere arpegia, ain-
beste euskaldun seme bere aurrean be-
launikaturik ikusten dauanean!

Eztogu bere biotz veneragarria ikusten.
Baiña nok esan bere samurtasunaren sa-
kona? Graziaz irakiten dago, ziur. Eta


Gaur Bizkai ederraren seme zintzoeri
berba egin gura deutset, Arantzazuko
mendi tontorretik.

Ba-dakizue aurten ARANTZAZUKO
JUBILEO URTEA dana. Basilika Barria-
ren amaia dala-ta, Urte santu ori eratu
dabe Frantziskotarrak euskaldunen onera-
ko. Erromako Aita Santua, esku zabal
agertu jaku. Amaika indulgentzia emon

ditu Urte santu orretarako! Parkamenik aundiena auxe da: Indulgentzia osoa Arantzazura **erromes** etorri, ta Ama Virginearen Irudiaren aurrean otoitz egiten daben guztieri; egunean bat bakarrik, eta Aita santuaren asmoetarako otoitz egiñaz.

Urte santu onetan, jai ikusgarriak izango dira Arantzazun eta Euskalerrri guztian.

Arantzazun, errietatik beste urteetan baiño gente geiago etorriko dalako, era askotako batzarrak bertan izango direa-



Eleiza Barria

Emen ikusi daroaguz Gipuzkoako erriak, Bizkaikoak...

lako, urte azkenean Eleiza Barria konsagraturako dalako, ta abar. Inoiz gente asko ikusi izan badogu Arantzazun, aurtan ikusiko dogu.

Euskalerrri guztian, Eleiz buru direan errietara Arantzazuko Ama Virginearen irudia eroaten asi direalako. Ta bai jai ederrak egiten direala bere omenean! Erri guztiak batzen dira bere inguruan, euren Zaindari ta Ama dan Erregineari biotzak

eskinteko, mesederik estuenak eskatuteko, otoitzik beroenak egiteko. Arantzazuko Amak bere erri ta seme guztiak bedeinkatu gura ditu.

Ta ba-daki Berak nun direan bere semeak. Ba-daki Bizkai aldean millaka seme daukozala, biotz biotzez maite dabenak, eta maitasun ori agertzen dakiennak. Bedeinkatu nai ditu, ta urtean urtean Bera ikusten etorten direan semeak, aurtan **ARANTAZUKO JUBILEO URTE** onetan Berak visitatu gura ditu.

Ta or izango dozue Bizkaian Arantzazuko Ama.

Bizkaitarrak, poztu gaitezdanok: Bizkaian izango da Arantzazuko Ama, ta

Arantzazun izango dira aurtan be Bizkaitarrak.

Bai orixe! Zelan Bizkaian uts egin aurtan Arantzazuko Amaganako maitasun-zaletasunak?

Bagillaren 16'an Ondarroara joango da Arantzazuko Ama, Ondarroa ta inguruko erriak bedeinkatutera. Ea, ondarratarrak, dana izango da gitxi, ta ekin gogor Arantzazuko Amak zuen artean egonaldí on bat euki daian.

Urrengo egunean, domekan, itxasotik Bermeorantz zuzenduko da. Bai eder eta ikusgarri Arantzazuko Ama itsas olatuen erdian! Nik uste dot lenengoz ibilliko dala itxasotik; eta Bermeok merezi be merezi dau olakorik beretzat.

Bermeotarrak, bai jai ederra zuentzat! Ainbeste maite dozuen Ama Arantzazukoa, zuen erria bedeinkatuten joango jatzue. Ondo daki Berak noraiño maite dozuen eta noraiño bear dozuen bere laguntasuna.

Eguerdi ostean, Foruko komentura joango da, Mundaka, Pedernales, Busturia, Altamira, Murueta eta inguruetako erriak bedeinkatuaz.

Urrengo egunean, astelenean, Gernikara jatsiko da. Batu beitez bertan egun orretarako, inguruetako erri guztiak, danon artean jairik ederrena egiteko. Ezin dau Ama Virgineak erri guztietara joan. Datozala, ba, egun orretan Gernikara.

Urrengo illaren erdi inguruan, Durango ta Arrati aldera joango jatzue. Ea, Durangon eta Arrati inguruan zelan portetan direan Bizkaitarrak Arantzazuko Amagaz!

Gaur egunean, guraso euskaldun askok uste dau ipuiñak eta olango gauzak umeen arteko lelokeriak direala. Baiño ezlira konturatuten umetasuna dala geroke gizonaren oiñarria.

Zenbat grazia ta bedeinkaziño ixuriko dauan Ama on orrek Bizkaiko errietatik igarokeran! Aurten lenengo aldiz izango dozue Arantzazuko Ama Bizkaian, Bizkaian be seme zintzo asko daukozala badakialako. Ba-daki Berak, Arantza ganean agertu zanak, eta ba-dakigu guk, urtero urtero emen ainbeste ta ainbeste Bizkaitar ikusten dogunok.

Zatoze aurten be; eta iñoiz etortekotan, zatoze **aurten**, ARANTZAZUKO AMA VIRGINEAREN JUBILEO URTE

onetan. Indulgentzia osoa irabaztera, Basilika Barria ikustera; esku zabalez Amak emongo deusuezan graziak artzera. Zuek Bera maite dozue bene benetan, eta Berak bene benetan maite zaitue.

Aurten, Arantzazu Bizkaian, ta Bizkaia Arantzazun.

Talan... tatan,
Aloñaren maldan!

Arantzazutarra.

Emakume batek emon eutsan Komuniñoa Mussolini'ri

Italiako lurraldea beti izan da katoliko aundien aberria eta Eleizearen oiñarri sendoa. Santu, martiri ta Aita Santurik geienak an ikusi dabe argia. Baiña naziño eder onek, emon deusoz munduari gizon gaiztoak be, erlegiñoari kalte aundia egin deutenak, Neron eta Kaligula-gandik asi ta Mussolini-ganaiño. Danok ezaututen dozuez Italiako Ekintza Katolikoa dala-ta, Aita Santuagaz euki zituan eztabaida garratzak. Bere aundinaiak oben asko egitera bultzatu eutsan: Europako gerratean laster jarri zan Alemania-ren alde eta kaltetan eta arriskuan ipiñi eban mundua eta bere askatasuna. Alan da guztiz be, azken orduan, bere txartoegiñakaz damutu egin zan.

Mussolini, erri katolikoaren semea. Seaska kristiñau batek eriotza kristiñau bat bear dau.

Urlia emakumea, irakasle katoliko bat zan. Oraindiño gaztea. 1944'ko agostuan, Forster, Danzig'eko gauleiter gogorraren serbitzuan sartu zan. Ori egin orduko, Aita Zenzen'egaz itundu zan. Lenengo egunetik sekretaria egin eben.

Zemendiaren azkenetan, Urlia neskatilleak mandatu ixilpeko bat artu eban. Alemanak gaixorik ekarri eben Danzig'era Benito Mussolini, Italiako Duce onperatua, epopeia antzeko moduan amerikanoen eskuetarik atarata gero. Berak, Urlia neskatilleak, zainduko eban gaixoa, eta se-

kreturik aundiena gorde bear eban, aren gordelekua iñori esan barik.

DUCE'AK ABADE BAT ESKATUTEN DAU

Izan-bere, sekretua guztizkoa izan zan. Mussolini'ri ez jakon iñor urreratuten, Hitler'en mandatariak eta Danzig'eko agintariaren sekretaria katolikoa izan ezik. Etorrita laster, biotzeko atakeak euki zituan Mussolini'k. Ori gorabeera, bere jagoleak ez eutsen ekarri medikurik. Azkenean, Gestapo'aren bitartez eginala egin ostean, Munich'eko osagille gazte bateri emon eutsen gaixoa ikusteko baimena.

Aztu eziñezko drama bat izan zan Urlia neskatillearentzako abendu atako bizitzea. Danzig'eko eleiza batera joaten zan sermoiak entzutera. Gero, Duce'ari kontetan eutsan an entzuniko guztia. Domeketan, mezako evangelioa irakurten eutsan. Dolorre ta naibagezko une aretan, fedearen azia erne zan Mussolini'ren ariman. Azkenean, abade bat eskatu eban: Eleizeagaz eta Jainkoagaz bakeak egin gura zituan. Eskabide onegaz amaituten zan dramearen lenengo partea.

HIMLER KONTRA JARTEN DA

Onen ostean, denpora tarte bat igaro zan. Urlia neskatilleak, Duce'aren guraria Forster bere ugazabari agertu eutsan. Forster'ek gero Hitler'eri. Führer'ak aintzat artu eban Mussolini'ren guraria, kondiziño bigaz baiña: gauzea ixilperik aun-

dienean egingo zala, eta orren barri Himler'en belarrietara ezelan-bere elduko ez zala.

Oraintxe asten da dramearen bigarren partea, guztiz emozionagarria beintzat. Aita Zenzen —fraille palotinoa— Jesus Sakramentadua abrigu barruan dauela, urduri dago Duce'aren alhora joateko bialduko deutesen kotxeari begira. Kotxea ez da agiri. Bien bitartean, eztabaida ikaragarri bat sortu da Mussolini'ren gordelekuan. Nunbaite-be iragazi egin da barria. Himler'ek jakin dauanean, beingo baten agertu da bertan, eta asarrez beterik zemaitu dau sekretaria koitadea, il egingo daua sazerdotea Duce'aren aurrera etorren bada.

JAUNA, JESUS SAKRAMENTADUAREN BILLA NATOR

Gabaz da. Ogetalau ordu or or igaro dira, Himler agertu zanetik. Beste leku batera joan bear dabe danak. Kotxe blindatu baten daroe Mossolini Prusia Orientaleko toki ezkutu batera. Beragaz doaz Urlia neskatillea, Munich'eko Doktore gaztea ete S. S. 'ko ofizial bi. Geratuten dira ostatu baten aurrean, basamortu baten. Sartzen dabe barrura Duce gizaixoa. Inguratuten dabe etxea S. S. 'ko dozena erdi soldadugaz, sartu-urtenik iñok egin ez daian. Ori gorabeera, urtetan dau ostatutik sekretaria katolikoak, ba-doa ariñakar in urren dagoan errira, eta eskatuten deutso parroko jaunari Jesus Sakramentadua, Mussolini'ri eroateko. Arrituten da lenengotan eleizgizona eta gauza txarren baten bildur da gero. Aitatuten dau Urlia neskatilleak Aita Zenzen'en izena, eta ipinten dau bere misteriozko eginkizunaren testigutzat.

Danzig'etik telefonaldi bat, eta eze-reztu egiten dira parrokoaren duda guztiak.

Ordu batzuk geroago, ikuskizun miragarria. Duce'aren alboan dago irakasle gaztea. Erreza eragiten deutso astiro astiro damu otoi-tza. Gero jaunartze aurreko oraziñoak. Azkenean, emoten deutso komuniñoa. Ainbeste urte igarota gero, lenengo komuniñoa!

GABON KANTAK ABESTUTEN

Asten da dramearen azkenengo parte. Antxe bizi da Mussolini, antígua-leko etxe aundi ta bakar aretan. Laster dator Gabon gaba. Egun orretan Hitler bera etorri jako alhora. Urlia neskatilleak, lenengo abagadunean, barriro urten dau kanpora. Eta arik laster, gordeta dakar Jesus Sakramentadua. Gabonetako arratsalde aretan, seirak inguruan, bigarren aldiz artzen dau Benito Mussolini'k komuniño santua. Gero, Hitler'ek eta biok, Noel arbolearen ondoan jezarrita, emoziónoz beterik abestuten dabe "Stille Nacht", mundu guztiko Gabon kanta klasikoa.

Baiña ezin eiteken ondo amaitu Gabonetako bake gozo au. Ostera-bere agertzen da Himler. Ikaragarriro gogorra da neskatilleagaz daukon berbaldia. Zemaiez beteriko aldarriak entzuten dira Gabon gau atako ixiltasun baketsuan.

Aita Zenzen'ek, ainbeste denpora ixilik egonda gero, oraintsu berba egin dau. Berak ez daki ezer Urlia neskatillearen gainean. Ez daki oraindiño bizi ete dan. Guztiok dakigu, barriz, zein izan zan illebete gitxi geroago Mussolini'ren azkena. Eta Hitler'ena, eta Himler'ena.

I.

EUSKALDUN BATEK ESAN DAUSKU

Txurruta eta Anka-jokua, Ugari

Euskaldun jator baten eritzia jakin nairik, aren etxera jo dot, paper batzuk eta lumea aldean ditudala.

—Etxean al dago U. jauna?

—Bai, ba, etxean dago. Zer nai zeunke ba? Zer esango dautsat?

—Barrien billa dabillen bat dagoela emen bere zain.

—Eta nor, ostera?

—«Anaitasuna»-ko bat dala esaiozu, eta... beingoan artuko nau.

—Tira, ba; ederto. Bereala adierazoko dautsat. Jesarri beite jesarri, mesedez.

Neskamearen esana egiñaz, jesarri naiz polito polito aulki bigun zabal eder batean. Ingurura begira asi naiz, eta etxeari alako gauza egoki ta aukeratua aurkitu dautsat. Garbi, txukun, ondo ornidua. Etxeak berak, ugazabearen gustu eta jasa erakutsi oi dau.

Aguro entzun dot Urlia jaunaren pausu-otsa, zikirri-zakarra etxeko oifitako zabalakaz.

—Egunon adiskide, eta parkatu— esan dautsat. Ordu-eza ete da zuretzat? Sasoi onetan etxean artuko zaitudala-ta, orregaitik nator «Anaitasuna»-koen izenez.

—Ordu-eza ostera? Bai zera! Euskearearen alde egiteko inoiz be ezta ordu ez-egokia; beti da garai ona. Orain, zuk esango dozu...

—Gure illerokoan agertzeko dala-ta, zure erantzun batzuek agertu nai dituelata, emen naukozu zerbaiten eske.

—Tira, ba, mutil. Asi zaitetz itauneak egiten.

Atarau ditut nire paperok eta esku artean gertu ipiñi bere bai, gure zaldun maitagarria nik zer esango adi-adi daukadala.

—Beste erri guztietakoak lez, euskaldunok bere, gauza on eta txarrak ei ditugu— esan dautsat, arloan asteko. Oraingo joera okerrak zeintzuk ete dira, agirienak beintzat? Agertu egiguzu zure iritzia.

—Nire ustez, txurruera larregi amore-emonik gagozala. Zorioneko txurruta! Euskalduna lango inor egarberarik, gitxi orraitiaño!

—Gazteak ala zaarrak?

—Zaarrok zerbait bear dogu piztugarriztat, baiña oraingo gazteriaren joera orrek eztakigu zelako kalteak egingo dauskuzan.

—Ta futbola-gaitik zer diraustazu?

Irribarre zabal bat egiteko eretia emon dautsat gure zaldun kontulariari. Burua gora ta beera erabili dau, urrunera begira dagoen bitartean. Isilaldiaren ostean ekin daust esaten:

—Gu gazteak giñanean, ai orduan, ikusi eta jokatu biok egin oi genduzan; batzuetan ikusi, baiña askoz be sarriagotan jokatu, geuk jokatu, gizona. Eta orain? Orain zer? Ikusi geienak: begira egon aoa zabalik, leku estuan larri egon alkarri bultzaka, onek irabaziko ete dauan, angoak eroango ete dituan gol guztiak...

—Orduan, leengoak jokolari ziran, ostikolari, kontulari edo ikusle ainbatean.

—Jakiña ba! Aldi aretan ikusle guztiak jokatzen eben gitxi edo asko. Orain... jesarrita egon edo zutunik egon ordu ta zerbait geiago... eta gero...

—Ordu luzeetan barriketan jardun.

—Orduetan ezezik, egunetan eta asteetan be bai, sarritan.

—Baiña, izatez, deporteia jardukizun ona ei da, ez?

—Bai, inok egin barik norberak egin ezkerro. Auzokoaren jan-edanak ezin niri gerri ingurua gizendu! Bizkortasunaz be, bardin jazoten da: zuk egiten dozuzan ibiltaldi, indarketa ta zirkiñak eztabe nire gorputza azkartuko.

—Ederto esana.

—Ezin ukatu Gure artean deporteiazale geiago bear geunke, eta barritsuak, urriago, gitxiago. Erakusbide ederra emoten dauskue beste ipar-erritar batzuk; esaterako, Suezia-tarrak. Gazte, agure ta atsoak eurak bere, egunero dakie an gimnasia egiten, lirain eta zal irauteko.

—Eta, oraingo bizimodua dala-ta, jantzi kontuan zelan dabitiz euskaldunak?

—Leenago, jan eta jantzi, esaten genduan beti. Orain, gauza asko atzekoz aurrera dabitiz eta, jantzi eta jan esan bear dogu askotan.

—Apainkeri larregi, bear ba da?

—Zetan esan be ez beste barbarik! Esanda esanda be, oraingo apainkeriak eztan neurririk.

—Zein neurri, gero, luzea ala laburra?

—Luze laburretan ez naiz ni sartuko orain; baiña artu auxe paper orretan. Kanpotarrak —extranjeruak— erdi billozik etorten yakuz udan, edozelako praka

mantarrak soñean, ganora andi barik, bai gizonezko, ta bai emakume... Ori bere, ezta ondo; baiña gureok ontzat artu daben dotoretasuna, norbere burua apaindu bearra, soñekoak aurrezean, dozenerdika euki bearra, ori...

—Eztozu ukatuko, ostera, euskaldunon gustu berezia eta jasa, jantzi egoki eta bitxiak egiteko.

—Ori bai, ori geure estetika-sentzuna da, musika-zaletasuna dogun antzera. Baiña, neurrian, adiskide, ez neurritik kanpora; betebetetxuan bai, baiña ez ganezka.

—Eta ziñea dala-ta, zer ipiniko dogu?

—Ziñea .. ziñea, orixe dala bai guztiok barruan artu gaituana, zar eta gazte, dirudun eta ezeuki. Ziñea ezta berez ez ona ez txarra; badakigu. An ikusten diranak ikusita gero, eztakit oindiño jentea galduago zelan eztagoent!

—Ziñe ona egitea, bestelako mese-dea izango litzake!

—Eta euskalduna ba litz gaiñera... Auxe bai amesa!

—Beste ezer txarrik euskaldunen artean?

—Euskerea galtzea. Eta geure gauzak, batez bere. Errri batzuk, gurea baiño turismotsuago diranak —gurea bere, geroago ta geiago da, egia— euren gauza bereziak, apartekoak, ondo zaindu eta erakusten dautsez arrotzai, kanpotarrai.

—Zer egin leitekela uste dozu euskeraren alde?

—Euskaldunak, euskeraz egin. Lenengo ta bein, orixe besterik ez. Geuk egin ezik nor egingo jok ba, euskeraz?

—Erdera egiten errazago ei dala-ta..

—Guzurra! Euskaldunak bere berbetan egingo dau ondoen, guzurrezko euskalduna ezpaldin ba da. Gauza ikasietan jarduteko, estudio kontuetan ekiteko, ori bai, izan leiteke erderaz errezago, arazuok erderaz bakarrik ikasi doguzalako... Baiña eguneroko gauzetaz berba egiteko, gure bizimoduko, gora, berak adierazoteko, euskeraz gizona-euskeraz. Beste errietako kristiñauak baiño motelagoak edo traketsagoak ete gara ba gu? Lengo batean, Madrilleko errebista batean irakurri neban, emengo neskatilla estudiante bategaitik ziñoana: «Neskatilla au oso argia da bere ikasgai guztietan. Bilbotarra da, ETA GAIÑERA EUSKERAZ DAKI!». Eta emengo leloak, izkera bat bakarrik jakin guraz, bi edo geiago jakin leiezela.

—Gure «ANAITASUNA»-k erakusbide orixe emon gura dautse euskaldunei. Edozer gauza, siñismen-arloa dala, literatura dala, deporte-gaiak dirala, barri jakingarriak... euskeraz agertu, irakurri eta euskeraz esan eta jardun-eragin.

—Illeroko polit ori, asteroko biurtu arte, jo ta su ekin bear dautsagu guztiok. Bakoitzak lau-bosna arpidedun batu ezkero...

—Eskerrik asko ba, jauna, eta urren-go zenbakian agertuko ditugu zure esatera mamintsu ta irakasgarriak.

Abandokoa.

ZELAN JAKIN GURE VOKAZIÑOIA

Josteko Makiñea

Arantza, neskatilla bizkorra, alai ta irribarretsua da. Jostun habilla ta ardurtsua. Atzo, ez ebillen ondo bere josteko makiñea. Luzaro pentsetan egon barik, zirti-zarta baten desmontatu egin eban, eta... ene bada! berak nondik ez ekiala, tuerka bat jausi jakon beera. Nondik baiña? Non eukon bere lekua? Larri Arantza, larri benetan asi zan tuerkearen lekua

edo... «vokaziñoa» billatuten. Ea ba —esan eban bere barruan—, tuerka au bere lekuan jarri bear dot:

Lenengo, nire makiñea ondo ibilli daiten.

Bigarren, bere lana antxe, bear dauan lekuan egin daian.

Ondo pentsatu, ondo ausartu: auxe dogu bide bakarra gure vokaziñoa aurki-

tuteko, eta Jainkoak momentu bakoitzean zer eskatuten deuskun ikusteko.

Amabos-egei urte bitarteko bidekurutzearan norantza jo bear dogun jakiteko; edo ezkontzekotan, gure biotzaren jaube nor izango dan erabagiteko; edo biaramonean ze ordutan jagi eta gure zeregiñak, itsumustuan ibilli barik, zelan atonduko doguzan jakiteko, auxe dogu modurik egokiena: **gauzak ondo begiratu, ondo ausnartu.**

Zein da ba gure vokaziñoa? **Geure lekura** garoazan bidea. **Geure lekual** Ortxe egon bear dogu, Jainkoak bakoxtari



emoniko doiak alik ondoen geitu ta ugaritu daiguzan, eta orrelan gure inguruan bizi direanak zoriontsuagoak izan daitezcan.

Sarri askotan ez da gauza erreza izaten norberaren vokaziñoa igartea. Orretarako, aurretiaz ondo pentsatu bear dogu, gauzak alde guztietarik ondo arakatu, otoitz egin, aita espiritualari eritxia eskatu. Gero be, Jainkoak eskatuten deuskuna emoteko prest egon ezik, gatx egingo jaku munduan zetarako garean jakitea. Esanekoa ez dan umeari, azkenean bere amak ez dautso bapere aginduten. Umeak geiago desobediu, amak gitxiago agindu,

gitxiago kastigatu. Orixe egiten dau sarritan Jainkoak gure zikoizkeri ta txaxarkeria ikustean. Ago betean «bai» esan bearrean, Jainkoari desobedietan deusagunean, urrundu egiten doguz bere graziak, eta olan gure vokaziñoa ulertu eziñean geratuten gara.

Beste gauza bat be, gatx egiten jaku: geure konfiantza osoa Jainkoagan ipintea. Zegaitik? Aurretiaz dana jakin gura izaten dogulako. «**Gaur gure egunoroko ogia**» —ez biarkoa ta etzikoa— eskatu eragiten deusku Berak Aita gurean. Ez jako gusetan zer-jan ta zer-jantzi billa larri baiño larriago dabillen gentea; ainbat gitxiago euren vokaziño arazoetan zelan urtengo daben ariñegi jakin gura dabiltzanak. «Egun bakoxtak naikoa dau bere arazoagaz», diñosku Jesusek Evangelioan. Egun bateko buruausteak berak argituko deusku biaramonekoa. Esatea lez: gaur ondo ibilli bagara, biar be ondo ibilliko, Jainkoa lagun.

Baiña gure etorkizuna jakin gura dogula-ta beste barik, urduri ta artega bagabiltz, orduan Jainkoak bere argia ukatu egiten deusku eta illunetan itxi.

Obeto izango litzake, neskato serbitzari on batek lez egingo bagendu: Ugazabandreagan begiak josita euki berak zer aginduko, eta agintzen dauana beingo baten egin. Edo besoetako ume baten antzera. Uinetxu batek ez deutso amari esaten: «Ama, biar nora joango gara? Zer egingo dogu datorren astean?» Naikoa dau beretzat, amaren besoetan edo eskutik elduta, txiki-txaka bideari jarraituaz.

«Ipiñi zeure eskua Jainkoaren eskuetan —diño Ingalaterrako esakune batek—. Orrek geiago balioko deusku argiak baiño, eta edozein bidefik baiño artezago ibilliko zara».

Aingeru.

ORAIN BERREUN URTE, MUNDU GUZTIAK, GENTE IKASIAK BE, SIÑISTUTEN EBAZAN SUPERSTIZIÑOAK

Beti izan da inkultura, naziño guztietako baserritar ta kaletarren jabe eta errege. Baiña gente ikasia be nausitzen dauanean inkultura onek, orduan asten dira naziñoen kalteak eta nekeak. Ona emen orain berreun urteko superstiziño batzuk. Batek baiño geiagok esango dau erdi-barreka: "Bai, atzo!" Baiña begiratzten badogu Kristo orain bi milla urte il zala, ezta ain urrun. Superstiziño oneitan Aita Fejook (Marañon mediku jaunak "Aita Maisua" deiturikoak) siñistuten eban, eta fraile entzute andiko au izan zan bere aldiko Espaiña iratzarri ebana. Ikusi daigun:

1. "Ona emen zelan defendietan dan arratoia, dragoiak arrapau eztaian. Bere koban sarrera bi egiten ditu, bata zabala eta bestea estua. Lenengotik sartzen da dragoia, arratoia arrapau gurarik; arratoiak sarrera estutik egiten dau iges, eta an geldituten da dragoia mogidu eziñik; gero arratoiak, asarez eta gulaz jaten dau dragoia".

¿Nok ikusi dau iñoz dragoirik?

2. "Tigreak, lirea entzuten dauanean, iges egiten dau".

Errazago izango litzake, tigreak, musikalaria, lira ta guzti jatea.

3. "Filipok, Mazedoniako erregeak, zelan bere aragia zorri ta arkakuso biurtuten zan ikusi eban; eta orregaitik il zan".

Barre egiteko benetan, aldaketa bur-lagarri onetan siñistutea.

4. "Iñok ezaban hipopotamua bizi zala siñistuten".

Luzeegia zan orduan Afrikarako bidea, duda barik.

5. "Illargiak gizonaren narrua erretan dau, baiña ez beroagaitik, otzagaitik baiño".

Badakizu, ez itzi gabaz txapela etxean.

6. "Mikroskopioz begituten bada tulipaiaren azia, tulipai txiker bat osorik ikusten da".

Danok dakigu tulipaia lore eder bat dala. Baiña orduan jazoten zan mikroskopioak karuegiak zireala, eta iñok ezaban sekula be begitu tulipaiaren azia mikroskopioz.

7. "Velillako kanpaiak, berez, sakristauak sokatik tiratu barik, entzuten zirean".

Ama Eleizeak ezaban egiazkoa zala milagru au esan, baiña genteak itsuki siñistuten eban milagru zala. Gaur be, ori berbera jazoten da guzurrezko milagru askogaz; Eleizeak eztau esan gura milagruak eztereantik, ze sasi-milagru onein ardurabakotasuna bera da naikoa, iñok orren ganean ez verba egiteko; eta alan be kristiñau askok siñistuten dabe guzurrezko milagru orreitan, eta dana dala ezin esan leiteke kristiñau zintzoak eztereantik.

8. Delfinak (arrain andi eder orreik) gidatzen ditu mariñelak itsasotik ibiltorduan".

Itsasotik estropasu barik ibilteko, bar-kuetako kapitaiñ pilotuak eztautsie deliñeri jaramonik egiten, brujulari baiño.

9. Siñiskeria onetan, gaur be askok siñistuten dau.

"Ollarrak, bere azken zaar-denporan arroltza bat egiten dau".

Bere errazoa dauko siñiskeria au ora-indiño bizi izateak. Ollোক, oso zaar egiten danean lumak aldatzen ditu, eta ollarraren irudia eta itxurea artzen dau. Eta au da, ollar au, ollar guzurrezkoa, arroltzea egiten dauana.

10. "Turkoak egiten dabezane menez-nuak surrera eroaten dituana, il egiten da".

Milla eta bat gabetako ipuiñetan bakarrik, alegia.

11. "Filosofi-arria: ikatza ukututen dauanean arri onek, ikatza urre biurtuten da".

Badakizu, adiskide: eztaukazu zegaitik fabrika bear egin bearrik: joan zaitez erriz erri arri orren billa, eta topetan badozu aberastu egingo zara. Baiña artu-izu gure konseju biotzekoa: segidu fabrikan eta etzara gosez ilgo.

Ganera, eta beste gauza askoren artean, orain berreun urteko genteak, iñok ikusi eztituan animalietan, gizon eta

emakume erdi-animalietan siñistuten eban; onein artean, nereidak, tritoiak, zentauruak, dragoiak, eta beste asko. Euskalerrian lamiñak, sorgiñak ersugeak eta abar. Baiña izena daukanak izana dauka. Au da begiak itxiteko eta errazoa ukatzeko biderik egokiena.

G. Aresti

EUSKALZALEEN TXOKOA

ABERASTU ZURE IZTEGIA TA KONZEPTUAK

Miraria ta *milagraua* eztira bat. *Milagrauak* Jaungoikoaren bitartez egiten dira, gauza naturaletatik kanpo. *Miraria* gauza arrigarri bat da.

Erlojuak obenak egiten ditu. Kristiñauak pekatuak. Pekatuak egiteko borondatea bear da; obenak egiteko, ez.

Euskaltzaindiak prestauriko jaialdia giro bero eta atsegiñ baten azpian ospatu zan Arriaga Teatroan

Ramon Menendez Pidal jaunaren karta bat artu zan bere oniritzia emonik

1.956-VI-10.—Arriaga Teatroan eta gentez beterik egoala Euskaltzaindiak jaialdi polit eta atsegingarri bat ospatu eban. Bilboko Obispoa, Gurrupide jauna; Bilboko alkatea, Zuazagoitia jauna; Bizkaiko Kultura Batzordeko jaun batzuek; eta Euskaltzain asko egon zirean. Teatroa bete eban gente geiena oso dotorea zan.

Jaialdi onegaz Euskaltzaindiak aro barri bat idigi gura izan dau, bere lanak eta ekintzak emendik aurrera probetxugarriagoak eta ugariagoak izan daitezcan. Asmo orregaz gertatu zan eta olan egin dabe egin be zabalkundea Bilboko periodituak, batez bere Astiz jaunaren bidez argitaratu direan artikuluak.

Genteak izugarritzko abegi ona egin deutso asmo orrerri eta ori dala-ta, eta tertzio txarra izan arren olango jaialdiak egiteko —uda-usaiña dauelako giroak— eztabe aitzu euskalzaleak bere obligaziñoa, eta persona bat bailitzan bete eben teatroa.

Bezperan Euskaltzaindiak Bilbon bertan izan eban batzarra, naikoa bizia eta interesgarria.

Jaialdi orretan, lenengo, Arrue jaunak esan zituen itz bero eta samur batzuek,

euskalzaleeri adorea eta sua emonik euren euskalzaletasunari jarraitu deioen. Batez be emakumeak izan bear dabe eragille, ze ortik asten da geienetan berbetearen zokoratzea.

Gero, Oleaga jaunak D. Ramon Menendez Pidal-en karta bat irakurri eban: Euskaltzaindiagaz batera lan egitea ei da bere gogo atsegiña; baiña lan asko eskuarteana eta medikuak galerazorik, ezin artu bear leuken asti guztia asmo ori betetako. Alan da guztiz be atsegiñez jakingo ei ditu Euskaltzaindiaren asmoak eta programak eta osasuna badau, gertatzen ari dan «Izkuntzaren Historian» euskal toponimiari naikoa leku emengo ei deutso.

Onen ostean Mitxelena jaunak erderaz berba egin eban. Azkue goratu eban eta onen aldiko euskaltzainen nortasun sendoa, eta zelan euren lan eta nekeen bitartez bide bat urratu daben, lepoan artu dabelarik ain pixu aundia bata bestearen atzetik Euskaltzaindian sartu direanak.

Esan eban zelan Euskaltzaindiak Azkue zanari omenaldi aundi bat egiteko gogoa dauen, berak merezi dauen aiñakoa, ze onek bakarrik egin eban belanaldi batek egin bearreko lana. Baita

zelan Euskaltzaindia onen iztegia zuzendurik eta osoturik argitaratzeko asmotan dabilen, naikoa denpora ta diru bear litzakeala ori burututeko.

Euskerea ez ei da Euskaltzaindiarena bakarrik, onen balorea aundiagotu egiten ei da zeinbat eta gente geiagorena izan, eta orregaitik, Euskaltzaindiak zuzentzeko arazoa dauen ezker, izkuntzearen alde lan egin gura daberen guztiakaz batera ekiteko prest dagoela. Euskaltzaindia ezta euskerearen motorra. Motorra danak dira, Euskaltzaindiaren barruan dagozanak eta kanpoan dagozanak.

Euskereak dituen espirituzko baloreak direala-ta ekin ostean. esan eban zelan gure burua ilgo gendukean au baztartuko bagendu.

Txalo ugariak artu ebezan izlari guztiak eta dantza eta teatrozko alderdia asi zan. Txinpartako gazteak oso ondo eta atsegiñez beterik ikusi izan zirean. Dindirri-ren dantzak bardin. Gentearen giroa oso beroa zan, eta orregaitik eta aspaldiko goseagaitik, iñoiz baiño gozoago eta samurrago iruditu jakon jaialdia, asi ta amaituarte.

Jaialdi au egin zan goiz aretan bertan, meza bat egon zan Kalzadetako komentu batean, Aita Villasante-k esanik. Euskaltzain eta euskal ikasleak batu zirean an, Aita Berriatua-k eginiko «Lagunarteko mezea» irakurri ta kantau ebelarik. Euskaltzain batzuek diñoenez oso samurra iruditu jaken, eta sarri egin bear litzakeala da euren eritzia.

Iztun.

Adorearen Indarra

Mendizaletasunak gente asko bultzatzen dau —batez bere kaletarrak— mendia- ren eta naturaleza basatiaren edertasunak eta gozotasunak biotzean sortzera. Eguraldiaren menpean egon bear, oster. Bezperan, ibiltaldia gertatzen danean, ezin jakin ziurtzia aundiz zelango giroa egongo dan biaramonean. Bateri baiño geiagori entzun deusat orain baiño len eguraldi txarrak be badituela bere gozotasun ederrak, ondo gertuta joan ezker, jakiña. Baleiteke; baiña eztau uste olan askok. Alan da guztiz be, bein ibiltaldi bat gertatu ezker atzera egitea ezta erreza izaten, ze geienak obatuko dauen esperantza eztabe galtzen azken momenturaino eta orduan be norabait joaten dira, mendira bertara ezpada be. Sarri askotan ikusi izan doguz olango jokaerak. Beste batzuetan —eta niri be orixe bera gertatu jat, artikulu onen gaia irakurten dozuenean ikusiko dozuenez— ezta galtzen bape adorerik eta izugarrizko alaitasun eta humore on batek eragiñik, lotuten gatzakoz erabakitako asmoari. Jakiña, ezagunen artean izan bear eta alkarren gogo-giroa zein dan jakitun dagozanen artean.

Bezperan eguraldi ona egon arren, goizean goiz lanparra zan. Mendira bidean asi giñeanean be, Mairuelegorretako

kobak ikusteko asmoagaz, olantxe egoan. Zeruko itxurea tristura aundikoa; lañoa sarratu ta urdin, berunezko koloreduna, eta mogimentu biziz aldatzen zan, argi egoana ilunduz eta ilun egoana argituz. Kamiñoak lupetzez beterik. Mendirik ezan iñondik agiri.

Taldean gozanean, naikoa da batek eukitea adorea, besteak kutsatu ta bultzatzeko. Eztakit, oster, zelan asi giñean be oiñez, tipi-tapa tipi-tapa bidean topau nebala nire burua, besterik eztakit. Gugaz etozan neskak be ezeben atzera egin, eta aurrera joan giñean alkarrerri lagunduz eta itxaronez iñor galdu ezeiten. Sortu zan bidean atzerakuntzea neska batzuen artean, baiña besteak aurrera egiñik ezin alde agin adorearen influentziapetik. Azkenean ezkenduzan kobak topau eta oso osoan ondatu giñean, baiña zer dan adorea eta onen balio izugarria noraiñokoa dan ikasi dogu. Amaitezko, gauzatxo bat autortu gura deusuet: Ni neu, taldean joan ezpanintz enintzala ezelan be bidean jarriko, baiña aolan izanik niri be adorea sortu jatala. Uste dot besteeri be beste ainbeste jazo jakela.

Iztun.

Euskal ikastaroa amaitorduan ikasle baten agurra

Euskal-ikasle lagunak:

Euskal-ikastaro au amaitzeko ordua eldu da, ta orregaitik itz labur batzuk esan gura dautsuedaz. Txarto esandakoak izango dira, baña zeuen borondate onak parkatuko daust, obeto esaten eztaikit-eta.

Orain asten dogun oporraldi onetan, eztoгу eukiko astean irutan ordu bete euskeraz ikasteko, orain arte euki dogun lez ikastaro onetan. Eguneko ordurik alaiena izaten da guretzat, lagunarte atsegiña dalako ta orrezaz gañera, euskerazko gaietan ikasten ekiten deutsalulako. Ordu onetan euskerea erabilten dogu danok, bakotxak dakigun lez, baiña guztiok gogo sendoagaz ondo ta al bait arifien ikasteko. Bai, ori egin bear dogu, ikasi, ta ondo gañera. Euskal erriko semeak gara ta orregaitik gure bearrizana euskeraz jakitea da, geure asaba zaarrak eta geure gurasoak itxi deuskuen izkuntza dalako, baita euskerea munduan dagoen izkuntza zaarrenetarikoa dalako be, ta guretzat gozoena. Jangoikoak emon dauku gauza ain goragarria ta maitagarria, ta galtzen ba-dogu, geure izakerea bere galduko da. Ori, zoritxarrez, ondo baiño obeto

dakigu. Bai gauza ederra, euskeraz ondo jakitea.

Ia ba, uda onetan, alperkeria alde bateraaitxita, euskerea erabili daiguna al dogun guztia. Danok ikasi dogu zerbait: nire ustez, ondo esateko, naikoa, ta orregaitik, alperrik aitzu ez daigun orain, dakiguna, erabili egin bear dogu, nai kaleetan, urian edo baserrian, eta aolan egin ezkeru, aurrerantza joko dogu, Euskaltzaindiko elburuak diñoan bezela: "EKIN ETA JARRAI". Orixe egin ezkeru, beste askok egin dauen lez, guk be ikasiko dogu, ta orduan bai esan geinke euskal-seme zintzoak gareala.

Emon deioguzan gure irakasle jaun zintzoeri geure eskerrik beroenak euskeraren alde egiten daben lanagaitik —lan oso neketsuak— eta Jainkoa lagun datorren ikastaroan emen batu gaitezala danok osasuntsu ta oraingo gogo beroagaz euskal-bidean aurrera egiteko. Aolan izan daitela.

Bilbo'n, Bagillaren 18'an, 1955/1956' garreneko ikastaroa amaitzean.

Zuon adiskidea

Mestraitua'tar Bingen.

Euskal ikastaroa amaitzean ikasleak Itziarrera egindako ibiltaldia

Bezperan euri zaparrada galantak bota zituen

Urtero egin oi dogun lez aurten be gertatu dogu ikastaroa amaitorduko ibiltaldia. Aurten Itziar izan da toki autatua. Bilbotik, Euskaltzaindiko klasekoak autobus bitan joan giñean. Bezperan euri zaparrada galantak bota zituen eta ori dala-ta atzera egin eben Eibarko, Gazteizko, Zumarragako, Mondragoiko eta beste tokieta. ko euskalzaleak. Dana dala, euri ta guzti joan giñeangu, autobusak itzemondea egozan ezkeru. Goizean bederatzi ta erdietan izan genduan mezea Itziarren, guretzat apro-

posa, Aita Berrituaren «Lagunarteko mezea» irakurri ta kantaturik. Arratsaldean obatu egin eban eguraldia eta sekulako garbi gelditu zan zerua, eguzkiak bere argitasun alaiagaz poztu ginduzalarik. Bazkal ostein errosarioa eta gero Txinpartakoak kaleko zoko batean egin ebezan euren egitekoak, ango erritarrak ikusle egozala. Abade ta jaun batzueri «Jai aurrekua» ikustean begiak malkoz bete jakezan eta benetan emozioz beterik egozan ain gauza jatorra ta ukigarria

eta benetan txalogarria ikusirik. Gero betikoa, txistuaren soñua lagun dantzaldiak. Itzultzean Lekeitiotik igaro giñean eta an be dantzaldi batzuek egin genduzan plazan. Xabier Peña jaun irakasle beargin porrokatua, izan zan zeaztasun guztiak

gertatu ebazana, berak dakian lez. Ia urrengoan eguraldiak lagunduten deuskun beste euskal-egun pozgarri bat gozatu aal izateko.

Iztun.



Txipartakoak kaleko zoko betean egin ebezan euren egitekoak

Aurreko igarkizunaren erabakia eta nor izan dan irabazle

Carazo'tar Gergorio, Oliteko Frantziskotarren komentukoa

Lengo Anaitasunan ipiñi genduan igarkizunaren soluziño asko artu doguz. Orre-gaitik berrogetamar pesetakoa, sorteatu egin dogu eta Carazo'tar Gergorio izan da sorteduna. Dana dala igarri dabenen izen guztiak emongo doguz jarraian:

Ajuria'tar Imanol, Oliteko Frantziskotarren komentukoa.

Gaztelu-iturri'tar Edorta, Bilbokoa.
Leyo, Lejonakoa.

Roman Erkiaga, Markinakoa.

Larrauri'tar Martin. Gazteizko Seminariokoa.

Felix Guerenabarrena, Gazteizko Seminariokoa.

Jose M.^a Erkiaga, Markinakoa.

Aolantxe emoten dau soluziñoa sari-
dun atera danak:

«Igarri ebanari Imanol deituko deutsa-
gu; ta Anton eta Peru beste bieri.

Imanol-ek bere sonbrerua zuria zala
jakiteko auxe pentsau eban:

—Nik sonbreru zuri bi ikusten dodaz;
eta nirea baltza balitz, Anton-ek auxe
esango leuke berekiko: Imanol-en sombre-
rua baltza da; neurea be baltza balitz,
Peru-k, sonbreru baltz bi (Imanol-ena eta
nirea) ikustean, ez leuke lanik izango be-

rarena zuria dala igarten, sonbreru baltz
bi baiño ez bai-dira. Baiña Peru ixilik da-
goen ezkeru nire sonbrerua zuria izan
bear.

Baiña Imanol-ek Anton eta Peru ixilik
dagozala ikustean, bere biotza poza dario-
la, onela diño:

—E! Nire sonbrerua zuria da».

Eskerrak, ba, burua ausi ta landu do-
zuen guztiori eta ekin etsi barik euskal
lanetan, oraingo gazteen aurretik zoazien
ezkeru geienok.

KONTU KONTARI

GORDEXOLAKO KANPANTORREA...
zelai antza artzen asi ei zan. Zirkillu ta
mailla guztietan bedartza ederrak sortu ei
zirean. Milagroren bat ete zan iñoenak
bazirean eleizkideen artean, eta abade
jaunak egun batez, pulpitutik azaldu eu-
tsen:

—Gure kanpantorreko bedartzea, ezta
iñongo milagrok ekarria. Aizeak jaso oi
daben autsa ta txoriak euren pikuetan
eroan edo korotzetan laga oi dabezan
aziak dira bedartza orren zegaitia. Nor-
baitzuk esan dabe itxusitu egiten dauela
dorrea, bedar orrek. Nire ustez, apaindu
egiten dauela esango neunke. Baiña ken-
du bear bada, kenduko da. Orain zeuk
asmau zelan kendu.

Sermoitxu orren ostean erriko jauntxu
guztiak batzartu zirean.

Kendu egin bear zireala bedarrok
erabagi eben. ¿Zelan? Koraña ta iretegia
baiño egokiago izango zala-ta, asto bat
jasotea pentsau eben.

Goian txirrinkea jarri, ta soka bategaz,
goiko mailletaraiño astoa jaso. Jan eizala
berak.

Gertau zirean orretarako. Samatik
lotu eben astoa. Jaso eben goiko maille-
taraiño. Baiña astoak ezin jan izan eban
bedarrik, gora igon ebeneko ito zalako.

Eta kanpantorreko bedarrak, geroago
ta luzeago, parran idarrak lez igoaz, dorre
guztia inguratu eben.

Kanpantorre politagorik ez ei da izan
munduan. Gordexolakoa baiño.

URAK EKARRI TA URAK EROAN.—
Errekaldeko neskame koxepintxu, euren
bezerueri esnea banatzera bialtzen eben

goizero. Zazpi arri-mailla zituen errekea
igaro bearra izaten eban urira eltzeko.

Buruko pañelotxu baten egarri zan,
da, axe erosteko, ura ezarten eutson
esnari errekatik paşetan zan bakotxean,
ori egiñez, etxekoeri ezer kendu barik,
bere askuratxoa be kentzeko.

Ornidu ebazan buru-zapiñoa erosteko
bear zituen txanponak eta eskuratu be
bai buru-apaingarria.

Pozez joian etxerantza, aurtxo baten
irudimen gozoetan.

Errekara eldu zanean, erreka ertzeko
ura espillutzat artuta bere burua ikusi
gura izan eban. Marmitak lurrean lagata,
jarri eban zapiñoa buruan; begitu espilluan
eta ¡zoragarri egoan!

Etxeko ta auzoak ikusi eien, olantxe
etxeratu bear ebala-ta, asi zan arri-gaiñik-
gain ugaraxua lez saltaka. Erdiko arrira
eldu zanean, norbait begira ete egoan-edo
ikusteko lotu zan eta burua jaso.

Une orretan axe-boladeak puts egin
eta zapiñoa urik bizienera eroan eutson.
¡Axe zoritxarra!

— ¡Eene! —esan eban—. ¡Auxe don
auxe koxepin! ¡Auxe bai donala!: urak
ekarri ta urak eroan.

KALEKO MEZEA.—¿Zer eritxi deu-
tsazu mezeari?—Itanduten eutson kaletar
batek baserritar bateri, meza nagusitik
urtenda.

—Kaleetako abadeak alperrak dira oso.
Gure errikoak, berak bakarrik esaten dau
mezea ordu-erdi baten; emen, barriz, iru
batu dira, ordu bete egin dabe, ta birritan
edo irutan jesarri dira.

Abeletxe.

ABERATSA TA SAN MIGEL

POLONIAKO IPUIN BAT

Urte asko igaro dira... Ama maite maiteak ipuin au kontau eustanetik; Aberats aundi bat bizi zan munduan, gaiztoa ta zekena. Ez eban iñoiz ezer emoten. Eskekoak bere jauregian ez eban limosnatxo bat be iñoiz jaso. Bere bularrean ezeukan biotzik, arri bat baiño. Egun baten, aberatsa bere jauregira bidean, eskeko batzuk inguratu eban eta ogia eskatu. Asko asarratu zan eta astinaldi bat emoteko prest jarri, gixajo areiri. Baiña bat batean morroi batzuk ikusi ebazan, euren otzarak ogi baltzez beterik ekarrezala, serbitzuan egozanen janaritzat. Deitu eutsen morroiari eta ogiak eskekoeri bota. Gero jauregira sartu zan. An, bere lagunak topau ebazan ta gau osoan, goizalderarte, janean, edanean ta dantzaz ekin eutsen, eskekoak, ogiak ta gaiñerakoak guztiz aiztu arte.

Gau orretan, oera sartu zanean, ames ikaragarri bat euki eban. Uste eban il eta zeruko atera eldu zala. An egoan San Migel eta esan eutsan: «Orain, zure egintzak, onak eta gaiztoak pixatu bear dodaz». Artu eban pixua; eskoian egintza onak eta ezkerrean gaiztoak ipiñi ebazan. ¡Zeinbat eta zeinbat gaizto moltzotu zirean! Eskoian eleiza, ermita ta komentueta egin ebazan laguntzak agertu bear eban, beste egintza on guztiakaz naste. Baiña pixuak ez eban egin zirkinik be. Aberatsa bildurrak artuta egoan oso osoan, lurra jota. «San Migel, eleiza guztiak

artu dozuz? ¡Jauregiak eta ume zurtzen etxeak artu dozuz?». Baiña pixua eban mogiduten. Aberatsa negarrez asten da ume txiki bat lez. «San Migel, pixua ezta makurtuten, egintza gaiztoak astunegiak direalako. Eutsi neure dirua». Baiña pixua lengo moduan, bardin. San Migelek esan eutsan: «Uste dot infernura joango zareala». Aberatsa dar dar jarten da: «¿Eztakazu egite onik?». «Ez —erantzuten deutso San Migelek— zure egite onak ez dira gauza, gizonen aurrean egin dozuzalako eta zeure zintzotasunaren gainean berba egin daien; baiña benetako gauza onik eztozu sekula egin».


Olango baten, aingeru batek otzara aundi bat dakar, ogi baltzez beterik. Artu ebazan ogi baltzok San Migelek eta pixuan ipiñi. Bereala makurtu zan pixua.

San Migelek esan eutsan: «Zerua zeurea da ta zure arimea, osatuko da. Ogi orrek, eleiza ta komentueta laguntzeak baiño geiago pixatuten dau. Jaunak zure zorrak parkatuko dautsuz. Zoaz mundura, bizi, ta emendik aurrera egin gauza onak.

Aberatsa mundura jatsi... ta bere ocan itzartu zan. Jauregi guztiak saldu ebazan ta dirua eskekoeri emon. Gero, il zanean Jaungoikoak bere arimea maitasunez beterik artu eban.

Maryla.


HUMOREAREN TXOKOA



Emazteak: —Oso liburu polita da orain irakurten dodana: zegaitik bizi direan andrak gizonak baiño luzaroago.



Fotografuak: -Barre egin mutil!
-Ez! Amagiñarrebarentzat da!



Sastrearen morroiak: - Ordainda arte eztoz itxiko. Olan esan deust nire ugazabak.



-Senar maitea, guzurra esan deustut. Eztakit ollasko errerik ipinteu, ezta galtzerdirik konpnduten, eta larrigurea emoten deust platerak garbituteak.



-¿Zu be Edurneri begira?

¡BIOTZ ONA!

Gizon bat juezaren aurrean egoan, lapurretan egin ebala-ta.



-Nik ezteukat errurik -esan eban lapurrak-. ¡Epaikari jauna, ulertu egin bear deust! ¡Eneukan ez jatekorik, ez etxerik, ez adiskiderik!

Eta orduan juezak sei illebeterako emon eutsozan adiskideak, etxea eta jutekoa.

ABARRAK

Euskaltzaindiak argitaratu dauen ipuin liburua. E. Bustinza-k egin zituenetatik autatuta. Umeentzat oso egokia oitu daitezaz euskeraz irakurten. Salneurria 12 peseta.

FELIS KATUA



EGIA TA GUZURRA

INGELESEN HUMOREA

Batek. - Jauna, uste dot igaz kafe onetan bertan ikusi genduala alkar.

Besteak. - ¿Ezaututen nozu, orduan?

Batek. - Zu ez, baiña daroazun euritakoa bai.

Besteak. - ¿Nire euritakoa? Baiña orduan enukan nik.

Batek. - Ez, zuk ez, baiña nik bai.

OLANGO ZERBAIT

- Erosle batek jostailuak saltzen direan denda bateko saltzaillan:

- Zortzi urteko mutiko batentzat interesgarria dan zeozer gura dot, eta bide batez naikoa erreza bere aitak be olgau al izan daien.

UTS BAT

- Aktore oso txar batek esaten eban:

- Ezin ulertu neinke zegaitik ilten nabon obra amaitorduan.

- Eta iñok bez - erantzun eutson adiskide batek - Asten danean egin bear leukie.

UMEOK!

- Atzo gure adiskide baten mutil bat etorri zan gure etxera eta boltsa bat ekarri eban amar sagarregaz erregalutzat. Eta nire emazteak esan eutson:

- Oraintxe bertan deituko deusat telefonoz zure amari eskerrak emoteko amar sagarrokaitik.

Eta umeak erantzun eban, apurtxo bat pentsatuta gero:

- ¿Ezin emon zincioz eskerrak amabigaitik?



EULALI

BIOTZ ONEKOA.

CHAS. KUHN-

